

ARTEAREN HISTORIA ARLOKO PROGRAMAZIO LABURRA

Irakaslea	Alaitz Ilundain Ruiz	Maila	2. Batxilergoa	Ikasturtea	2020/21
-----------	----------------------	-------	----------------	------------	---------

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

- Hautazko ikasgaia da batxilergoko Giza Zientziak eta Gizarte Zientzietako ibilbideetako ikasleentzat. Unibertsitatera sartzeko hautaprobaren hautazko ikasgaia da.
- Aste-lau orduz ematen da.

OINARRIZKO GAITASUNAK

Gaitasunak eraginkortasunez eskuratzeko eta curriculumean benetan txertatzeko, ikasleen gaitasun bat baino gehiago aldi berean lantzeko aukera emanen dieten ikaskuntza jarduerak integratuak diseinatuko dira, ikasia errealitateari aplikatu diezaioten.

Landuko diren gaitasunak legeak jasotzen dituenak dira; Hizkuntza komunikazioa, matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiko oinarrizko gaitasunak, gaitasun digitala, ikasten ikastea, gaitasun sozial eta zibikoak, ekimena eta ekintzailtza, kontzientzia eta adierazpen kulturalak. Informazio gehiagorako: <https://bon.navarra.es/eu/buletina/-/sumario/2015/127/> (3.orrialdea, 5. artikulua)

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

Batxilergoa: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1>

EDUKIAK

O. MULTZOA.

1. Gaia. Sarrera Artearen Hizkuntzari.

I. MULTZOA. EUROPAKO ARTEAREN ERROAK: ARTE KLASIKOAREN ONDAREA.

1. Gaia. Arte Grekoa.

2. Gaia. Arte Erromatarra.

II. MULTZOA. MENDEBALDEKO ARTE TRADIZIOAREN SORRERA: ERDI AROKO ARTEA.

3. Gaia. Arte Erromanikoa.

4. Gaia. Arte Gotikoa.

III. MULTZOA. EUROPAKO ARTEA ARO MODERNOAN: GARAPENA ETA EBOLUZIOA.

5. Gaia. Errenazimenduko artea.

6. Gaia. Arte Barrokoa.

IV., V, VI. MULTZOK. XIX. ETA XX. MENDEAK: ARTE GARAIKIDEA. ABANGOARDIAK.

7. Gaia. Goya.

8. Gaia. XIX. Bigarren erdialdeko eta XX. mendeko arkitektura.

9. Gaia. XIX. eta XX. mendeko arte plastikoak.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

[Batxilergoko kurrikuluma](#)

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
6	0. Gaia. Sarrera.	11	4. Gaia. Arte Gotikoa.	7	7. Gaia. Goya.
10	1. Gaia. Arte Grekoa.	13	5. Gaia. Errenazimenduko artea.	14	8. Gaia. XIX. Bigarren erdialdeko eta XX. mendeko arkitektura.

9	2. Gaia. Arte Erromatarra.	11	6. Gaia. Arte Barrokoa.	14	9. Gaia. XIX. eta XX. mendeko arte plastikoak.
10	3. Gaia. Arte Erromanikoa.				

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Gehien garatuko den metodologia azalpen bidezkoa izango da eta partehartzea aldioro bultzatuko da. Ekintza bidezko metodologia ere garatuko da ikasleek jarduera eta ariketa desberdinak egin beharko dituztelarik. Baliabide anitzak erabiliko dira, digitalak, internetezkoak, bideoak, aurkezpenak, paperezkoak eta bestelakoak.

Ikasleek irakasleek classroom-etan zintzilikatutako materialak eta paperezko apunteak (ikasi beharreko gaitegiko apunteak) erabili behar dituzte.

ERREKUPERAZIOA

- Berreskuratzeko azterketak, ebaluazio bakoitzaren ondoren egingo dira derrigorrez. Ebaluazio bakoitza gainditzen ez dutenek berreskurapen azterketa egin beharko dute. Berreskurapeneko nota gehienez 5 izango da.

- Ikasturte amaieran ebaluazio guztiak 5 batekin gaindituak egon beharko dira edo gutxienez 4tik gorako nota (**berreskurapena egin ondoren**) izan behar dute batez bestekoa egiteko.
- Berreskurapen nota 5 izango da baita nahikotasunean eta ez-ohiko deialdian ere.
- Nahikotasuna gainditzen ez duten ikasleek ez-ohiko azterketa egin behar izango dute eta gaitegi guztiari buruzkoa izango da.

KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK edo BALIABIDEAK

- Azterketek ebaluazioko notaren % 90 osatuko dute eta gainerako % 10 ikaslearen lanak eta jarrerak.
- Ebaluazio bakoitzeko azterketa bakarra egonen da, (lehen ebaluazioko salbuespenarekin, lan bat, notaren %20-a baliko duena eta azterketa bat, notaren %80 balioko duena egongo dira).
- Azterketak USE-ko azterketa eredu berdina izango du.
- Lanak entregatzeko epean entregatu behar dira, bestela ez dira aintzat hartuko.
- Kopiatzeak suspenditzea suposatzen du.
- Sakeleko telefonoak institutuan debekatuta daudenez, irakasleak jaso behar izanez gero, puntu bat jeitsiko dio ikasleari ebaluazioan.
- Gelako jarrera negatiboak beherako eragina izango du notan.
- Azken ebaluazioko nota gainontzeko ebaluazioen batez bestekotik abiatuta borobildu daiteke hiru aspektu hauek aintzat hartuta: azterketetan lortutako kalifikazioen progresioa, klaseetan erakutsitako interesa eta parte hartzea eta bidaltzen ditugun lanak maiztasunez eta epean egin eta entregatu izana.

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEKOAK

- USE zuzentzeko erabiltzen diren irizpideak jarraituko dira;**

1.- Ariketei **0tik 10era puntu arteko kalifikazioa** emanen zaie, bi zifra dezimalekin, 0,25 punturen multiplo izanen dira.

2.- **Galdera teorikoak** kalifikatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

Artearen Historiaren ezagutza espezifikoaren maila, alderdi hauei dagokienez: Noraino diren adierazgarriak eta zehatzak kontzeptuak eta mugimendu edo estilo artistiko bakoitzaren ezaugarri formal definitzaileak. Denbora koordinatuen zehaztasuna, bai eta beren bilakaeraren denborena ere. Artearen **hiztegi espezifiko**a ongi erabiltzea.

Heldutasun intelektuala eta informazioaren tratamendua: Kontzeptuen ordena, argitasuna eta koherentzia azalpenetan, eta erantzunak galdera bakoitzaren eduki esplizituei dagozkionak izatea.

3.- **Artelanaren analisisian, hauek balioetsiko dira modu espezifikoan:** Artelana eta artista testuinguru historikoan ongi kokatzea. Artelana osatzen duten elementuak nola antolatzen diren adieraztea eta formaren analisisa egitea, ezagutza artistikoak artelan horri aplikatuz. Horri dagokionez, elementu hauek balioetsiko dira artelanaren iruzkinean:

a) **Analisi formala:** artelana osatzen duten elementu formal eta teknikoak eta bereizten duten bere estiloaren ezaugarriak argi eta modu ordenatuan deskribatzea eta analizatzea: • Artelanaren identifikazioa: tipologia, materiala, gaia (eskultura eta pintura) eta zer estilori dagokion. • Hizkera formalaren alderdi adierazgarriak: - Arkitektura: oinplanoa, altxaera, estalkiak eta euskarriak, irizpide estetikoak... - Eskultura eta pintura: alderdi ikonografikoak, giza irudiaren tratamendua, konposizioa, espazioa, lerroa, kolorea eta argia...

b) **Testuinguru historiko-artistikoa:** labur identifikatzea artelana zein garaitan den sortua, garai hartako premisa kulturalak eta egilea.

4.- Galdera erdi irekietan, 5 artelani buruz egiten diren horietan, artelanak identifikatzeko zehaztasun-maila balioetsiko da, ikasleak galderari ematen dien erantzunen bidez.

- **5etik aurrera gainditzen da.**

- **Borobiltzea:** kasu guztietan borobiltze matematiko arrunta erabiliko da, hau da, lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da. Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren dokumentu honetan jasotako borobiltze irizpidea erabiliko da.

OHARRA: Hau guztia hasierako plangintza da, malgutasunez jarraituko dena. Ikasturtean zehar zerbait aldatzea komeni dela baloratu ezgero, horrela egingo da.